

Irudia: Ibai Gandiaga



Jordi Serramia Azalaren egilea

Aldiri. 2012. III. 12. 4. ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2012-10-02 / Onarpen-data: 2012-10-19



Unai Fernandez de Betoño °

Jordi Serramia Ruiz (Alacant, 1981) arkitektoa eta Urbanarbolismo bulegoaren sortzailea da (www.urbanarbolismo.es). Arkitektura eta ingurunearen arteko erlazioa biziagotzeko lan egiten du, hainbat gai jorratuz, bestek beste, energiaren aurreztea, uraren kudeaketa arduratsua, eta gizakiak erakitakoaren eta naturaren arteko sinbiosia. Harekin berdez hitz egin dugu.

Urbanarbolismo bulegoaren izenak Alacanteko arkitektura-eskolako ikasle garaiko zure proiektu bat du jatorri. Bertan aldarrikatu duzu prozesu urbanizatzaileak lurraldea basoberritu behar duela. Zer esan nahi duzu, zehazki?

Usadioz, hirigintzan bateraezintasuna existitu da espazio naturalaren eta espazio urbanizatuaren artean; baita espazio naturalaren eta hirietako berdeguneen artean ere. Urbanarbolismoren proiektu eta filosofia inguru naturalaren eta hirigintza-artearen arteko sinbiosi-guneak aurkitzean datza, biek onurak lor ditzaten. Kontua ez da soilik lurraldea hormigoitzeari uztea edo ingurua basoberritzea: jarduera horien bidez lortu behar da ingurune naturalaren hobekuntzak zuzenean eragitea bizi-kalitatearen hobekuntzan. Horrek natura ezinbesteko bihurtzen du. Guk *natura hiritar babestua* esaten diogu. Hura erdiesteko, inguru naturala tresna bihurtu beharra dago, hau da, basoak erabili behar dira eraikinak hozteko, hezeguneak sortu behar dira etxebizitzetako urak arazteko eta berrerabiltzeko, masa berdeak estrategikoki kokatu behar dira —natura-sareetan integratuz— hirietako airearen kalitatea hobetu dezaten...

EAEko 2/2006 Lurzoruaren Legeak zera eskatzen du 79.2.d artikuluan: «bizitegiarako lurzoruan, etxebizitza bakoitzeko, zuhaitz bat landatu beharko da». Nahikoa iruditzen al zaizu?

Goraipatzeko ekimena da EAEko 2/2006 Lurzoruaren Legeko artikulua hori; beste erkidegoetako legedietan kopia beharko litzateke. Hala ere, guretzat kontua ez da zuhaitzen kopurua edo berdeguneen azalera, baizik eta horiek nola proiektatzen diren, zer-nolako erabilgarritasuna eskaintzen dieten herritarrei, nola laguntzen dieten biodibertsitateari, nola integratzen diren dagoen inguru naturalean. Askoz gehiago egin dezakete ondo proiektatutako ehun zuhaitzak, pentsatu gabe landatutako milak baino.

Inguru naturala tresna bihurtzeko beharra aipatu duzu arestian. Ikuspegi erromantiko gehiegi al dago paisaiagintzan?

Hirigintza-plangintza gehienetan berdegunea planoan agertzen den berde koloreko orban bat da, non zuhaitzak eta landareak egongo diren, jendeak txakurrak aterako dituen eta umeak jolastuko diren; inguru eraikiarekin gutxi gorabehera integratuko da espazialki. Inguru naturala, berriz, hirigintza-proiektua mugatzen duen lerrotik kanpo gelditzen dena da. Ikusmolde horrek asko mugatzen ditu arkitekturak eta naturak elkarri eragiteko aukerak.

Inguru naturala tresna bihurtzen duen adibide bat, ordea, Gasteizko hezeguneetan dugu: berreskuratu egin dira uholde-uriek sortzen duten ur-soberakina bildu ahal izateko. Izan ere,

hezeguneek hiriak uholdeetatik babesten dituzte. Beharrezkoak dira. Herritarrentzat funtsezkoa den funtzioa betetzen dute.

Imajinatu etxebizitzaren alboan egokiro planifikatutako basoek ahalbidetzea aire egokituaren erabilera beharrezkoa ez izatea; imajinatu hirietan hezeguneak ondo integratzea eragitea udalen gastua erdira murriztea. Eta hori guztia, gainera, ez da paisaiagintza erromantikoaekin bateraezina.

Zure manifestu urbanarbolistan (ikus hurrengo orrialdea) eskatzen duzu hirigintza-garapen guztien azalaren % 85 gordetzea natura sustatu moduan. Horrek ez al luke ekarriko dentsitate baxuegia eta lurzorua alferrik galtzea?

Iraunkortasuna dentsitate altuari datzekio. Guk defendatzen dugu dentsitate altuko hirigintza-garapenak egin daitezkeela % 85eko azalera natura sustatua sortuz. Hori lortzeko, bestek beste, altuera handiko eta okupazio txikiko eraikinak proposatzen ditugu, adibidez, eVolo arkitektura-aldizkariaren 2009ko etxe-orratzen diseinu-lehiaketan finalista gelditu zen gure proiektua, dorre basoberritzailea Benidormen.

«Zibilizatzea da zolatzea» esan du Oriol Bohigas hirigileak. Ez zara ados egongo, ezta?

Zibilizatzea zoladurak jartzearen sinonimo izango zen beste garai batean, zeinetan gizakiak borrokatzen baitzuen naturan toki bat sortzeko eta finkatzeko. Gaur egun, ordea, esan daiteke zibilizatzea dela telefono mugikorra eta Internetarako konexioa edukitzea, baita horrek ondorioz dakartzan hirigintza mailako konnotazio guztiak ere.

Batzuetan zaila da mozorro berdezko arkitekturaren eta benetako arkitektura iraunkorraren artean bereiztea. Ez duzu uste Gasteizko zure bi proiektuak (2012ko Hiriburu Berdearen gordiozko iragarkia eta laster berrituko den Europa Jauregiaren fatxada berdeala, aldizkari-zenbaki honen azalean ikus daitekeena) berdea marketin moduan erabiltzen duen arkitekturaren sailkatzeko arriskua dagoela?

Egia da hizki berdearen proiektua ez dagoela iraunkortasunetik pentsatuta, baizik eta marketin-parametroetatik. Hala ere, Gasteizen egiten ari diren ekimen iraunkor guztiek —esaterako, arestian aipatutako hezeguneak— irudi bereizgarri bat behar dute, eta horretarako daude hizki berdeak.

Europa Jauregirako lorategi bertikalaren proiektua bestelakoa da. Ikuspegi didaktikotik dago pentsatuta, Gasteiz inguruko ekosistemak hirigunera ekartzeko eta herritarrei azaltzeko bitarteko gisa. Gainera, eraikinaren portaera energetikoa hobetzen eta inguruko zarata xurgatzen lagunduko du.

° Unai Fernandez de Betoño doktore arkitektoa eta EHUko irakaslea da.

